

Aitzinsolasa

*Katia Reimberg Castello Branco*¹

Liburu honi aitzinsolasa idazteko eskatu zidatenean, «lan erraza» izango zela pentsatu nuen lehen txanda batean, espetxe hitzak bere horretan jakin-mina, morboa eta nolabaiteko haustura eragiten dituelako. Gainera, emakumeak, erlazio afektibosexualak, hauskortasuna, biolentzia, amatasuna, gorputza, agentzia, diskurtso berriak eta euskal gatazka bezalako bestelako kontzeptuak gehituta, emaitza nahikoa da irakurketa sustatzeko.

Baina ez, ez da hala izan. Liburu honi lehen hitzak jartzeak arduraren pertsonal, emozional eta politikoa handia suposatzen dit, nire espetxealdia birpasatzera derrigortzen naudelako; eta hori egiteak, aldi oro, izugarri mugitzen nau. Gaintutua izango dudana eguna heltzearen eta honetatik den moduan hitz egitearen ilusioa daukat. Baina egun hori ez da oraindik heldu eta ez dakit helduko den. Beraz, hor jarraitzen dute nirekin, ezkutuan, noizean behin azaleratzen diren «estrukturak», isiltasunak, absentiak, zalantzak, errua... baina badaude eskuratutako ikaspenak eta aurreko guztiak deseraikitzearen prozesuak ere. Beraz, liburu hau aurkezteko topatzen dudana modurik onena nire esperientziaren bidez hau existitzeko beharra azaltzea izango da.

Nire espetxealdiko desesperazio momentu batean, amaren aldeko nire amona Janiraren hitzetara itzultzen nintzen, zeinak esaera herrikoi bat errepikatzen zuen: «buru hutsa, deabruaren bulegoa». Beraz, honi aurre hartu nahian, espetxeko liburutegia goitik behera aztertu nuen —batere handia ez dena, bide batez— gertatzen ari zitzaidana ulertzen lagunduko zidaten liburu edo bideoak bilatzen. Asko bilatu arren, *Montekristoko Kondearen* liburua eta *El patio de mi cárcel* filma topatu nituen soilik. Azkenean, batere baliagarriak egin ez zitzaizkidan irakurketez betea nuelarik burua, irakasle bati emakumea eta espetxeari buruz hitz egiten zuen liburuaren bat topatzeko eskatu nion, eta horrela heldu zen nire eskuetara Dolores Julianoren *Excluidas y marginales*.

Denbora espetxean oso poliki doan zerbait da, lokutorio eta aurrez aurrekoetan izan ezik. Azken horietaz gozatzeko aukerarik ez nuenez, pentsatzeko astia izan nuen eta Dolores Julianoren senideei eskertze gutun bat idaztea erabaki nuen, idazlea hilda egongo zela pentsatu bainuen; bere liburuak zenbat lagundu zidan adierazten

1. Itzulpena: Oihana Etxebarrieta Legrand.

saiatu nintzen nolabait. Ez nintzen inoiz gutun hori bidaltzera heldu, baina oraindik ere gordeta daukat.

Liburu hori nire euskarrietako bat izan da, baina onena heltzeko zegoen. Batek bere buruari zergatik gertatu den azaldu ezin dion testuinguru horietako batean, emakumeei eta espetxeari buruz ikerketa egiten ari zen bost emakumez osatutako talde bateko bi kide ezagutu nituen. Ikerketa horretan lehen aldiz nire esperientziari buruz hitz egin nuen. Prozesu horri esker, bizitzaz espero dezakezun gauzarik onena jaso nuen, egun bost emakume horiek aukeratutako nire familiaren parte dira, eta Dolores Juliano —prozesu honetan bizirik zegoela jakin ahal izan nuen— nire amona da, kideetasunagatik.

Zergatik kontatzen dut istorio hau? Erreferentzien beharra izaten jarraitzen dugulako, diskurtso berri eta alternatiboak lantzeko eta zabaltzeko eta iruditegi berriak edukitzeko beharra daukagulako. Irakurketa honen bidez, pertsona guztiak interpelatuak sentitzea nahiko nuke eta espetxea den arazoari soluziobidea jartzeko bestelako espazio eta moduak mahaigaineratzea.

Espetxeak, gertu egon arren, pertsona askorengandik urruti eta beren bizitzetatik kanpo egoten jarraitzen du. Krimen perfektu baten susmagarri izaten jarraitzen dugu, baina krimen perfektuak ez du susmagarririk uzten.

Sarrera

Oihana Etxebarrieta Legrand, Maria Ruiz Torrado eta Laura Vara Jimenez

*Edozeren gainera jarraitzea, egunen batean
kontatu ahal izateko, bere distirak oraindik
itsututa eta harrিতuta naukan «momentu»
aluzinagarri honen gainean testigantza eman
ahal izateko [...]. Aspalditik elkartasunaz
arduratzen garen pertsonentzako, batere berria
ez den egoera bat, gehiegitan errepikatua...
Eta ezinezkoa zitzaidan alerta oihua indartu eta
gertatutakoa hobeto ulertzen lagunduko duen
dokumentu baten, testigantza baten edo gutun
soil baten garrantziaz ez jabetzea¹.
Eva Forest, *Diario y cartas desde la cárcel*
(Hiru, 1995)*

Momentu aluzinagarria aipatzen du Eva Forestek espetxetik idatzitako gutunetan. Espetxea, tortura, errepresio-sistema... jasatea egokitzen zaion pertsonaren bizitzan momentu katartikoak bilakatzen dira, eguneroko bizitza eta pertsonaren izaera apurtzeko eta sistemaren beharretara berregokitzeko momentu bezala. Euskal Herrian, *momentu aluzinagarri* horri buruz hitz egitearen beharraz mintzatzen zen Forest, indarra hartu eta gertatutakoa kontatzearen beharraz, uler dezagun, hori bizitzea egokitu zaien pertsonen alboan egon gaitezen, bestelako egitura batzuk amestu ditzagun. Baina frankismo-garaiko espetxe horietan emakumeek berek bizitzen zutena azaltzearen beharra handia bazen, egun dauden *momentu aluzinagarri* ere genero-ikuspegia txertatzeak beharrezkoa izaten jarraitzen du. Ez baikaude ohituak emakumeok bizi dugunak dituen berezitasunak analizatzera, ikusezina den espetxe-sistemaren barnean, ikusezinoak egiten ditugulako oraindik emakumeak.

Baina badago egoera honi aurre egiten saiatzen ari denik, ez azken urteetan soilik. Eta esku artean duzun liburu hau, gaur egunean, aktibismotik zein akademiatik hori lantzen saiatzen ari direnen lanen bildumatxo bat da. *Momentu aluzinagarriak* ikuspegi feministatik aztertu nahi dituztenen ekarpena. Hainbat lan eta ikuspegiren arteko elkarriketa bilatzen saiatu gara, liburuaren izenburuan esaten

1. Itzulpena egileena da.

dugun bezala, txarrantxen artean gertatzen denari, argi-izpi ezberdinak ekartzeko asmoz, ikusarazteko eta ondoren pentsatzen jarraitzeko. Eztabaida sustatu nahi dugu, batzuetan ikuspegi kontrajarriak mahaigaineratu eta gogoeta kolektiboa bultzatu. Eva Forestek esaten zuen moduan, behin alerta-oihua entzun duzunean, ezin duzulako beste alde batera begiratu, eta guk gizartean gaia azaleratzen jarraitu nahi dugu, betiere analisi feminista bidelagun izanik.

Askotariko iritzi eta ikuspegiak topatuko dituzu hemen, esan bezala batzuetan ideia kontrajarriak mahaigaineratzen dituztenak; baina oinarri komuna dute, espetxe-sistemaz hitz egitea eta horrek emakumeon bizitzetan duen eragina ikusaraztea. Gainera, uste dugu errealitatearen argazkia dela hau, gaiak dituen erpin anitzetara heltzen saiatzen ari garelako. Lau bide proposatzen ditugu hemen. Lehenak emakume espetxeratuaren diskriminazioa iraunarazteko egun dagoen sistemaren analisia egiten du. Zigor-botereak, maila sinboliko zein materialean, botere patriarkalarekin duen lotura ikusarazten arituko gara lau lan ezberdinetan. Bigarrenean, sistema honen baitan dauden pertsonen gorputz zein harremanek erresistitzeko dituzten mekanismoak agerian jartzen arituko gara. Espetxe-sistemaren aurrean, presoen agentzia eta haien egoeran eragiteko duten gaitasuna azpimarratzen dituzte beste lau lanek. Hirugarrenean, euskal gatazkaren testuinguruan kokatuko gara bereziki, nahiz eta analisisirako esparruak askotarikoak izango diren beste lau lanetan; harremanak, kulturgintza eta maskulinitatea. Amaitzeko, emakume presoekin zuzenean lanean dauden profesionalen ekarpenak jaso ditugu, bizipenetan oinarritutako bi testurekin.

Prozesu honetan ez gara inoiz bakarrik egon eta lagundu diguten horiei guztiei eskerrak ematen amaitu nahi dugu. Ez gatoz ezerezetik, eta gure bidea argitu duten izpi bero horiek gabe ezinezkoa izango litzateke bidea urratzen jarraitzea. Asko pozten gaitu guretzat oso bereziak diren bi pertsonak liburua zabaldu eta ixteak haien aitzinsolas eta epilogoekin. Egun lanean ari direnei, zuen ekarpenak eskaini dizkiguzuenoi eta kafe eta infusioetan hausnartzeko bidea eraikitzen jarraitzen duzuenoi ere eskertu nahi dizuegu argi-izpi izatea. Amaitzeko, liburu hau *momentu aluzinagarri* hori bizitzen ari diren emakumeei eskaini nahi diegu, *edozeren gainetik jarraitzea* posible delako.